



[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

604. zkia.

XV. urtea

2007ko martxoaren 2a

Gerrate Zibila 1936-1939

Eibar eta Elgoibarko frontean 200 bat lagun hil ziren



GUREKIN HASI ETA HEZI

Lehen Hezkuntza • D.B.H

MATRIKULATZEKO ORDUTEGIA: Egunero 9etatik 19:00etra

ARGIBIDEAK: 943 741 331 telefonoan

E-POSTA: nsp42elg@planalfa.es



IMANOL LARRAÑAGA

Belaunetik operatu berri dute gure ama, Uxue. Desgastea dauka eta protesia jarri diote. Kosta egiten zaio mugitzea, eta hankak ez ezik, eskuak ere behar ditu ibiliko bada. Makuluak lagun hartuta dabil tiriki-tarraka. Geratu denean konturatu gara ama noraino iristen zen. Kiloetan behera egin duenean ikusi dugu amak zenbateko pisua daukan. Gurea bezalako zenbat ama pasatzen ote da Mendarotik bizitzari tente eusteko belaunak operatzera?!

Beste modutan ikusten ditut zure belaunak. Aspaldian hara eta hona sumatzen zaitut geratu ere egin gabe. Atzo, lehen bertso-txapela buruan zenuela bueltatu zinen etxera; gaur, berriz, estreinako liburua besapean hartuta irten zara kalera; bihar, Kubara joango zarela irakurri dizut; etzi, Indiarra. Ilusioak ematen dizun denbora nahikoa ez, eta lanean irabazten duzun diruarekin denbora gehiago erosten duzu. Mugitzeko jaino zinelako. Eta batzuetan estresak hatzaparka egin arren, ez duzu elurretan topatu duzun aulkian eseri nahi.

Uxue izatetik Uxue Alberdi izatera pasa zara di-da batean, Uxu. Ez dakit zu ere adinak *domatuko* zaituen, baina gure amak aspaldi emandako aholku bat etorri zait akordura: *"oin aprobetxau, geldi egoteko denboria gero ere izango da-eta"*. Hori bai, pentsatu al duzu nongo desgastea izango duzun gure amaren edadera iristen zarenean?

ZOZOAK BELEARI...



UXUE ALBERDI

Ez dut pentsatu, ez. Baina prest nago oraingo joan-etorrien ondorioak bizkar gainean hartzeko. "Baldin eta ondorioak pairatzeko gauza bagara, norberaren erantzukizuna onartu behar baldin badugu, askeak gara ezinbestean", irakurri diot Fito Rodriguez *Kasandra leihoan* saiakeran. Eta nik ez dakit aske naizen, segurueenez ez, baina aske sentitzen naiz. Nahi dudana egiten dut. Edo egiten dudana nahi dudala uste dut, behinik behin.

Baina ez iezaziozu nire izenari abizenik itsatsi. Ilusioen atzetik doan norbait baino ez naiz: bertsoa, literatura... behar ditut, haiek ni baino askoz gehiago.

Gainera, izena jartzen hasita, mila modu daude: duela bi aste, Espainiako ABC egunkarian "supuesta escritora proetarra" bataiatu ninduten, esaterako. "Proetarra"rena segurua zen, noski; zalantza "escritora" horretan zegoen... Iñaki de Juana askatzearen aldeko atxikimendua ematea zen motiboa.

Iñaki, hori da aske izatea. Kordelak eskuturretan, orkatiletan eta bularrean: aske. Ondorioak azkeneraino pairatzeko gai izatea. Ni hedonista hutsa naiz, plazer bila noa literaturara, bertsoara, Kubara edo Indiarra. Ez naiz hartatik gaizki sentitzen, azken aldia irribarre zabal bat dut begietatik zintzilik. Baina abizena? Abizenak utzi ditzagun Iñaki de Juana Chaos modukoentzat, ohore egiten diete eta.

«Ez duzu
elurretan topatu
duzun aulkian
eseri nahi»

IMANOL

«Ilusioen
atzetik doan
norbait baino
ez naiz»

UXUE



MUNDUA MUGITU NAHI DUENAK,
LEHENBIZI BERE BURUA MUGITU BEHAR DU

Socrates



537 ahots Elgoibarren

Elgoibarren Ahotsak osatzen dugun emakumeok, ideologia eta ibilbide desberdinak ditugun emakumeak gara. Bantzen gintuena alde batera utzi eta bantzen gaituen horretatik abiatuta hasi ginen, duela 8 hilabete lanean.

Bake, elkarrizketa eta herritarren borondatea errespetatzea izan dira, gure arteko harremanaren ardatzak. Idatzi honen bitartez, herritarrak eskertu nahi ditugu: Ahotsak-ek egin duen ekarpenarekin bat egin duzuen guztioi mila esker.

Bestetik, eskerrik beroena, Txankakua dendari elkarteari, erakutsi duen elkartasun jarraeragatik.

Bukatzeko, bake prozesua babesteko gure konpromisoa berresten dugu. Hurrengora arte.

ELGOIBARKO AHOTSAK EMAKUME TALDEA

Euskal Herriko Bake Epailen Elkarte

Otsailaren 25ean Mendaron bildu ginen Euskadiko bake epaileok gure kezka azaldu nahi dugu, lehenik eta behin, azken hilabeteotan bizi dugun egoera politikoagatik, eta bereziki, justizia, zuzenbide-estatuaren oinarrietako bat, jasaten ari den egoeragatik.

Justizia administrazioan handituz doan politizazioarekin harrituta gaude. Epailen eta arlo politikoan hartzen dituzten erabakien protagonismo publiko eta politikoa gero eta handiagoa da; arduradun instituzional eta politikoen kontrako prozesu judizialak onartu eta babestearaino, soilik, elkarrizketa politikoa praktikatzegatik.

Bake epaileak sistema judizialaren lehenengo mailan gaude eta herritarrekin eta hauen arazo, ardurak eta eskariekin harreman zuzena daukagu. Gertutasun horri esker, herritarrentzako gero eta handiagoa den justiziaren ospearen galera eta haserrea nabari ditugu. Herritarrekiko dugun gertutasun eta zuzeneko harremanak, arazoak konpontzeko elkarrizketa eta akordioa, beste edozein tokitan ez bezala, defendatu eta aplikatzera behartzen gaitu egunero.

Horregatik, Euskal Herriko Bake Epailen Elkarte honek elkarrizketa, akordioa eta adostasunaren balioak berresten ditu, aurrerapenaren eta arazo eta gatazken irtenbiderako tresna bezala. Honegatik guztiagatik, estamentu judizial guztiei, beste edozein alorretan baino gehiago, sistema demokratikoan oinarritzekoak eta ezinbestekoak diren printzipio hauek bermatzea eskatzen diegu.

"EPAILEEN ARTEAN" ELKARTEA

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituhare:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
3. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
4. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
5. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitz argitaratuko.

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxe: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitate: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barrenpubli@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Enrique Bert **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.620 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



KEXAK

• **639 etxebizitza hutsik eta toki guztietan etxeak eraikitzen ari dira:** "Ezin dut sinistu. Prentsan irakurri nuen aurrekoan 639 etxebizitza huts daudela Elgoibarren eta edozein bazterretan etxe berriak egiten dituzte. Ez al da garrantzitsuagoa hutsik dauden etxe horiek betetzea? Etxebizitzen arazoa gero eta handiagoa da, arazo larria bai gazteentzat eta baita ez hain gazteentzat ere. Mesedez, egoera honi buelta eman behar diogu denon artean, bestela, etxea ordaintzeko bakarrik bizi beharko gara".

• **Santa Ana kaleko errotonda oso gaizki margotuta dago:** "Aspaldi hasi ziren obrak Santa Ana kalean eta errotonda moduko zerbait jarri dute, trafikoa errazteko asmoz. Ideia ez da txarra, ondo dago, baina lurreko marrak ez daude oso ondo margotuta eta nahiko nahasmen sortzen da. Jendeak ez du jakiten nondik joan behar duen edo nork daukan lehentasuna, eta askok ez dakite hor errotonda bat dagoenik ere. Mesedez, obrak irauten duten artean izango dela badakigu, baina lurreko marrak argiago jartzea eskatuko nuke, gidariek argi jakin dezaten hor errotonda bat dagoela. Mila esker".



• **Basarteko parkeko iturria puskatuta dago:** "Joan zen astean Udala txalotu zuten Basarteko parkea berriro dutelako. Hala da, eta oso ondo gelditu da, baina dagoeneko, iturria puskatuta dago eta ur pila bat galtzen du. Umeak, eta baita nagusiak ere, ura edatera gerturatzten garen bakoitzean, blai eginda amaitzen dugu. Bestalde, parkean dauden kolunpioak nahiko arriskutsuak dira iruditzen zaigu. Ume txikientzako dira, eta ez daukate eusteko barandilarik. Ume bat baino gehiago erori da, eta ezbehar larriagorik gertatu baino lehen, San Pedro auzoko kolunpioek dituzten bezalako heldulekuak jartzea komeni dela iruditzen zaigu. Mila esker".



Aital honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Nafarroa enparantza, 2
 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12



Elgoibarko
Udala




**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako
Foru Aldundia





URRUZUNIOREN Luma

Ez gera bakarra

III mende dira Scotland-ek independentzia galdu zuela, 1707. urtean. Askoz ere lehenago, erromatarrek Eskots Lurra hartu nahi izan zuten, baina ezin! Zeltak indartsu, basati eta azkarrak omen...

Denboran aurrera egin eta Skotland Inglaterrarekin batzen da. Hobeto esanda, batzen dute, tripa-haundi boteretsu gutxi batzuek. Eskots Lurra eta bere herritarrak amorratuta daude. Ez dute beti izorratzen ibili den Inglaterrarekin bat egin nahi!!!

Gaur egun, gaelikorik ez da entzuten Eskots Herrian. Ipar iparrera joan behar zara hura entzuteko. Haurrek eskoletan ikasten badute ere, ez dute berba egiten. Gaelikoa ez dute erabat galdu, berreskuratuko dutela esan digu eskoziar batek. Horretarako, INDEPENDENTZIA behar dutela diote.

Pozik somatu dut Eskots Herria, beraien subiranotasuna gutxi barru lortuko dutelako ameslari. Historian beste aro bat hasiko delako irripartsu!

Amaia Urzelai

[ZORTZIKO TXIKIAN]



M^a CARMEN CORRALERO

DENA EURO 1 ETIK
DENDAKOA

- **Zenbat gauza erosi daitezke euro batean?**

Garbiketa produktuak, liburudendako artikulua... euro batetik behera daude asko.

- **Euro bat soberan izango bazenu?**

Euro asko ematen ditu! Behartsuei laguntzeko erabiliko nuke, jendeak behar handia dauka.

- **Lehen "Dena 100 pezetan" zen, orain "Dena euro lean". Bezeroak kexatu al dira igoera honekin?**

Bai, jendeak oso ondo daki ez direla berdinak. Borobiltze asunto horrekin nahiko haserre agertu dira.

- **Zenbat produktu desberdin daukazu dendan?**

Pila bat, 1.000tik gora esango nuke.

- **Zein da eskatu dizuten produkturik arraroena?**

Euritako bat zeukan kapera. Ez dut inoiz ikusi, baina eskatu zidaten behin, existitzen omen da.

- **"Dena euro lean" bezalako dendetan, gauzak garestiago daude...**

Atean argi jartzen du "Dena euro batetik", bestela bezeroa engainatzen ari zara.

- **Produktu merkeak garesti ateratzen al dira?**

Batzutan bai, baina badaude kalitatezko produktu merkeak. Batzutan hobe da pixkat gehiago ordaintzea.

Ospatu ala sufritu egiten dugu Martxoak 8 a?

BOTAZANK!

Zure iritzia inporta zaigulako.

www.elgoiBARREN.net

Elgoibarko berri izateko beste modu bat.



[AKORDATZEN NAIZ]



MIREN VALLEJO

1923an jaioa

«Telebistaren bitxikerixak»

Emakume baten gauza bitxixak; telebista etxera eraman ziuengan hasi ziran istilluak. Martxan jarri besterik ez, eta han hasi zan amaren problema.

Telebista aurrean jarri zanian ezin zaban ulertu bertan azaltzen zan emakumiak zer esaten zion. Harrituta deittu zion alabari eta "zer jion honek? Honek esaten jittun ederrak!, Erantzuten jionat, baiña alperrik, berak beria-

kin! Ez dakin zer dotore dagan bera! Aldatzera najien mantal hau, bestela esango jon". Alabaren erantzuna: "Ama, berak ez zaittu ikusten". "Nola ez, ba? Nik ikusten jonat, ba, bera!". Bazkaltzen zauden baten, telebista kendu egin zaban amak, alabari esanez: "Etxaukan horrek zertan jakin gu zer jaten ari geran". Eta horrela, beste mila gauza telebistaren gaiñian. Berexiak ziran ama honen istorixak.



[GURE BERBAK]

Moduzko esaldixak (4)

Gaurkuan *-TU AHALA* atzizkixa izango dogu hizpide. Elgoibarren, horrela eta baitta *-TU AHALIAN* forman ere erabiltzen da. *AHALA* idatzi arren, [ALA] esaten/entzuten da. Bi gertakizun izaten dira horrelakuetan, eta bat gertatu eta segidan bestia gertazen da.

Ekari dagiguzen adibide batzuk, errezago ulertuko da horrela eta:

Gu (basarritik) kalera etorri giñan danok, ezkondu ahala.

Zuek, akordau ahala, holako istorixak lasai kontau, e!

(...) kanbixuak hartzen bati, eta, eman a(ha)lla, ekarri a(ha)lla eman egitten niuen dirua.

Abade frankista katalan bat zan... Iguar tablia esaten, eta hola illaran danak, jarri eskua, hola dogula, eta jota eman a(ha)lian, di-da, di-da! Jota bilddurrez!

Antzeko erabilleria dauka beste honek ere: **-eN BEZELA.**

Gero, bidiak, berriz, oiñ bezela egongo balira, bai. Orduan ez zavan ibiltzerikan, basia galanta, besterikan ez... Gero, motorra hartu naban. Eta gero, mejoratzen dijuan bezela, kotxia.

Pertsona batekin konfiantzia hartzen nixen bezela, hika hasten naiz.

Jesus Mari Makazaga



Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klinika

www.clinicarecalde.com

Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tfnoa.: 943 20 18 44

1936-1939

GERRA ZIBILA ELGOIBARREN

Jesus Gutierrez, historian lizentziatua eta Intxorta Kultur Elkarteko kidea den eibartarrak, "La Guerra Civil en Elgeta y Eibar" izenburupeko liburua aurkeztu zuen pasa den astean. Bide batez eta ia, gerra zibilaren 70. urteurrena bete zela aitzakiatzat hartuz, gerra zibilaren xehetasunak ezagutu nahi izan ditugu; Eibar, Elgeta eta Elgoibarko herrietan arreta jarri. Horretarako, Jesus Gutierrezekin berba egin dugu.

Gerrate zibila 1936tik 1939ra luzatu zen. Horixe jaso du Jesus Gutierrezek bere azken liburuan. 2001ean, "La resurrección del 34 y las Segunda República en Eibar" liburua idatzi zuen, eta honen jarraipena da azken liburu hau.

Behin matxinatuak (frankotarrak) Donostian sartu zirenean, ia Gipuzkoa guztiaz jabetu ziren. Elgoibar, 1936ko irailaren 22an erori zen. Egun honetan, Franco-ren soldaduak Azkaratetik behera, Elgoibarrera sartu ziren. Maltzagan, berri, eibartarren Amuategi gudarostea (sozialistez osatua) zegoen eta Sorraluzen, ostera, nazionalak zeuden, zeintzuk, mendi gainak hartu gura zituzten, kainoien laguntzaz, herriak beren menpean izateko. Modu honetan, Karakate bereganatu zuten. San Pedrotik Arrateraino ere, igo ziren, eta lehia latza egin ondoren, Kalamua osoa mendean hartu zuten.

Hurrengo zazpi hilabeteetan, jo eta su jarraitu zuten.

INGURUKO FRONTEETAN ARITU ZIREN ZENBAIT ELGOIBARTAR

Larrea (1937. urteko urtarrilak 1ean), Luis Astigarraga (irailaren 16an, Eibarren); Asensio Gabilondo (1937ko apirilaren 30ean, Zugastietan) Manuel Larrea (1936ko abenduaren 2an, Eibarren) eta Andres Lejardi (1937ko apirilaren 25ean, Basurton).

Modu berean, makina bat soldadu italiar egon ziren Elgoibarren: Piazzoni generala buru zuten, "Las flechas negras italianos" deiturakoak eta Mussoliniren "Division Motorizada Italiana: 23 de Marzo" izenekoak, baita ere.



«Elgoibartar askok Bilbaora ihes egin zuen»

HERRITARREN JARRERA

Jesus Gutierrezen aburuz, nazionalismoa zen nagusi gure herrian. Eibarren aldiz, 1931ko Udal Hauteskundeetan, 19 zinegotzien artean, 18 koalizio batekoak ziren (errepublikarrak eta sozialistak batera joan ziren) eta beste zinegotzi bat EAJkoa. Elgetari dagokionez, nahiko parekatua zegoen nazionalisten eta karlisten presentzia.

KURIOSOTATEA

Elgoibarren, Alfonso Carlos de Borbon y Orleans, espainiar noblea hil zen Morcaikon tiro bat jaso ondoren; gaur egun Espainiako erregea den Juan Carlos I-aren aitona.

FRONTEAN HIL ZIRENAK ETA FUSILATUAK

Gerra Zibilak iraun zuen denboran, Intxortako frontean 350 bat lagun hil ziren (bi bandoetakoak) eta Eibar zein Elgoibar arteko gerra tokian, bestalde, ia 200 lagun. Honen harira, aipatu, frontean zauritzen ziren soldaduak, Altxolako bainuetxean zegoen ospitalera eramanak izaten zirela, lehenengo zainketak izan zituzten. Fusilatutakoak izan zirenen artean, elgoibartar bat, Pio Garate Arizmendiarrak izan zen.

JESUS GUTIERREZ

HISTORILARIA



«Gerra zibilaren ondorengo urteetan errepresioa ikaragarria izan zen»

• Zergatik zentratu zara Eibar eta Elgetako gerra zibilaren kontakizunean?

Herriko historia kontatu nahi izan dudalako eta bi herri hauek, gerra zibileko azkenengo erasoaldiaren aurretik, zazpi hilabetez, Gipuzkoan, Errepublikaren menpe geratu ziren herri bakarrak izan zirelako. Egoera hau bi faktorek ahalbidetu zuten: batetik, bi hilabete borrokan aritu ostean, nazionalak nahiko ahiturik zeuden eta bestetik, estreinakoz, Txekoslovakiatik kontrabandoan ekarritako armak iristen dira Santanderrera bost itsasontzitan. Hemendik, armen zati bat bederen, Eibar eta Elgetako gerra tokira heltzen da. Honela, lubakiak osatzen dira eta honi esker, defentsa lerro bat eratzen da. Nolabait, Eibar eta Elgeta, errepublikarrentzat giltza izan ziren, ondoren Bilbaora jotzeko.

• Zer gai jorratu dituzu zure lanean?

Gizarte gaiak, batik bat: errepresioa, kanporaketak... Helburu nagusia, herriari aho-tsa eman eta herriko sentimenduak jasotzea izan da. Horretarako, bi aldeetako jende arruntaren testigantzak bildu ditut.

• Zein gertaera esanguratsu nabarmen-duko zenituzke?

Beraien etxeetatik premiazko gauzak hartu eta alde egiteko trantzean aurkitu ziren herritarrak eta bonbardaketak jasan zituen binztanlego zibila. Hau da, italiar eta alemaniar hegazkinetatik jauritako bonbak ezezik, Karakaten eta Arrateko mendi gainetan kokaturiko kainoien erasoak sufritu zituzten herritarren egoera. Elgoibarren, askok Bilbaora ihes egin zuten. Datu bezala, erantsi, 1937ko apirilaren 26an eta bezperan, bizi izandako eraso- en ondorioz, 74 lagun inguru hil zirela Eibarren.

• Gerra zibila, anaien arteko guda izan zela esan ohi da...

Espainiar eta euskaldunen arteko gerra izan zela esan izan ohi den arren, nik ez dut uste inondik inora horrela izan zenik. Nire iritziz, gerra ideologiko bat izan zen.


• Zergatik lerrokatu zen euskaldun asko Francoren alde?

Errepublika sortu ondoren, nolabait belurtuta zeuden, aurreko mendeetan edukitako eskubide guztiak arriskuan ikusten baitzituzten: aintzinako gizartean elizak zuen presentzia eta baita, botere ekonomikoa ere.

• Gerraren ondorioak?

Errepresio ikaragarria. Hurrengo urteetan, esaterako, Eibarren 19 bat lagun inguru fusilatu zituzten. Elgetan ere, sartu bezain laister, bortxaketak eta fusilamenduak gauzatu zituzten. Horrez gain, jende ugari espetxeratua izan zen eta beste hainbestek, erbesteratu behar izan zuten. Era berean, dirua eta baliabide ugari konfiskatu zituzten.

«1936ko irailaren 22an, Francoren soldaduak sartu ziren Elgoibarren»



[PROTAGONISTA]



Moises Agirre

Moises Agirre "Errezabal" elgoibartarra hil zen otsailaren 25ean, 89 urte zituela. Musika munduan oso ezaguna izan zen. 7 urterekin sartu zen Parrokiako koroan. 1929. urtean, 12 urte zituela, Udal Musika Bandan jotzen hasi zen Inazio Bereziartuaren zuzendaritzapean, eta 50 urte pasa eman zituen bertan saxofoia jotzen. Hiru saxofoi mota ezberdin jo zituen bere ibilbide guztian; altua, tenorea eta baritonoa. Harrezkero, beste bost zuzendari izan zituen. Musikaria eta musikazale amorratua zen, eta beti joaten zen Udal Musika Bandaren kontzertuetara.

[NOTIZIA]

Emakume Langilearen Egunerako ekintza desberdinak antolatu dituzte

Datorren ostegunean, martxoak 8, ospatuko da Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna. Hori dela eta, Haizea Emakume Taldeak, Gazte Asanbladak eta Biluzik Sexologia Zerbitzuak ekitaldi desberdinak antolatu dituzte. Besteak beste, hitzaldiak, erakusketak, zine emanaldiak eta kontzentrazioak egingo dira. Ekitaldiak martxoaren 17ra arte luzatuko dira.

Hitzaldia eta mendi irteera

Martxoaren 8an bertan egingo da kontzentrazioa Plaza Handian iluntzeko 20:00etan. Honekin batera, Haizea Emakume Taldekoek bi ekintza azpimarratu dituzte: batetik, Pascal mediku frantsesak medikuntza ekologikoari buruz eskainiko



duen hitzaldia (martxoak 7, 20:00 Kultur Etxean), eta bestalde, hilaren 11n Kalamuara egingo duten mendi irteera eta bazkaria. Honetaz gain, esmalte erakusketak egingo da ikusgai Kultur Etxean hilaren 17ra arte, tailer desberdinak eskainiko dira eta bideo forum-a egingo da hilaren 9an Eskarne Larrinagarekin.

[ZENBAKIA]

12.880

Eustat Estatistika Institutuko datuen arabera elgoibartar bakoitzak batez beste 12.880 euroko diru sarrerak ditu urtean. Familia elgoibartar baten urteko errenta, bestalde, 31.118 eurokoa da. Euskal Autonomia Erkidegoan 30.000 eurokoa izan zen famili errenta 2001ean.

asteko [ARGAZKIA]



Etterat-ek deituta, ordubeteko lanuztea egin zen joan zen ostiralean, otsailak 23, presoek eskubideen eta presoak Euskal Herriratzearen alde. Lanuztearekin batera, eguerdiko 12:00etatik 13:00etara bitartean kontzentrazioa egin zuten Plaza Handian zenbait herritarrek, "Euskal Presoak Euskal Herrira" lemapean, eta alde zaharreko komertzio gehienak itxi egin zituzten ordu tarte horretan. Etterat taldearen deialdiarekin bat egin zuten zenbait elkartek; besteak beste, LA-Bek, Segik, EHAK-k, ezker abertzalearen Udalbiltzak eta EHEk.

50 urtetik gorako ibilbideari amaiera eman dio Aisiakin enpresak



Abenduaren 31n itxi zituen atea Aisiakin enpresak, 50 urtetik gorako ibilbideari amaiera emanez. 80 langile inguru izatera iritsi zen Aisiakin, baina 40 izan dira bukaerara arte lanean jarraitu dutenak. Azkenean, bakoitzak bere bidea jarraitu du: batzuk aurre erretiroa hartu dute, beste lan bat topatu dute besteek eta bat langabezia gelditu da.

Iritzi kontrajarriak

Juan Carlos Villanueva Aisiakin-eko administratzaile bakarrak 2002-2003. urtean sektorean egon zen krisi gogorra ai-

patzen du arazoen iturburu gisa. 2004ko otsailean etenaldi egoera deklaratu zuten zorrak moztu eta egoerari buelta ematen saiatzeko. LABeko delegatuekin ere hitz egin dugu, eta hauen ustez zerbaite "arra-roa" egon da: "2004. urteko balantzea positiboa izan zen, Aisiakinek irabaziak eduki zituela esan zitzaigun eta urtebete beranduago 600 milioi pezetako zuloa zegoen". Zuzendaritzatik "gestio txar" baten ondorioa izan zela esan zieten. Dena dela, langileak enpresa aurrera ateratzen saiatu ziren, baina ez zen posible izan. Zorrienez, zor guztiak kobratu dituzte.

10 dendari merkatarientzako euskara ikastaroetan



10 dendari hasi dira GUREAN BAI-Merkataritza hitzarmen proiektuak prestatutako merkatarientzako euskara ikastaroan. Dendariak bezeroek euskaraz egindako eskari errazak ulertzea da ikastaroaren helburua. Ahozkotasuna ere landuko dute, bezeroa agurtzen eta bezeroari zer nahi duen galdetzen ikasiko baitute, kopuruak, zenbakiak, ordutegia, eta bestelako gaiekin batera. Eskolak Udal Euskaltegian jasotzen dituzte Agurtzane Epelde irakaslearen eskutik. Astean birritan 2 orduz jarduten dute. Otsailean hasi zen eta ekainean amaituko da 60 orduko ikastaroa.

[MOTZ-MOTZIAN]

18/98 epaiketaren kontrako manifestaziorako autobusa

Datorren martxoaren 10ean 18/98 epaiketaren kontrako manifestazioa egingo da Bilbon, "Eskubide zibil eta demokratikoen alde" lemapean. Elgoibarko 18/98 plataformak autobusa jarriko du manifestaziora joateko. 16:00etan aterako da Plaza Handitik. Interesatuek ohiko lekuetan eman dezakete izena. Bestalde, 18/98 plataformatik herritarrei eskerrak eman nahi dizkiete orain arte erakutsi duten jarreragatik eta antolatutako ekitaldietan parte hartzeagatik.

Gazte Asanbladarekin sagardotegira

Gazte Asanbladak sagardotegira irteera antolatu du datorren martxoaren 9rako. Autobusa iluntzeko 20:00etan aterako da Txariduna aurretik, Astarbe sagardotegira. Tiketak Txurri Beltz tabernan daude salgai, langileentzat 35 eurotan eta ikasle eta langabetuentzat 30 eurotan.

Euskal Jaiak gogoratzeko logotipoa aukeratu dute

Nuria Llorente Agirre logroñoarrak irabazi du Euskal Jaien mendeurrena gogoratzeko logotipo lehiaketa. Guztira 23 lan aurkeztu dira lehiaketara, eta antolatzaileek esan digutenez, kalitate handiko lanak izan dira: "epaimahaikideek zailtasunak izan zituzten irabazlea aukeratzeko". Nuriak 300 euroko saria jaso du.



Inkesta

Martxoaren 8an Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna izango da.

Emakumearen Nazioarteko Eguna egutegian egoteak zer esaten dizu?

IDURRE EZENARRO
Langabetua
30 urte



“Berdintasunaren alde borrokan jarraitzeko egun bat da, eta beharrezkoa da egutegian egotea. Emakumeen eskubideak aldarrikatzeko eguna da.”

ANGELICA PELAEZ
Ikaslea
16 urte



“Gaur egun emakume asko dago lan munduan eta egun honetan jai egin beharko lukete. Lan munduan oraindik gauzak asko hobetu behar dira emakumeentzat.”

LUCIA MOLINA
Etxekoandrea
36 urte



“Nik ez dut ospatzen, borrokarako egun bat da, baina ez da ezer lortzen. Urteko egun guztietan aldarrikatu behar dira emakumearen eskubideak, zerbait egin behar da.”

M^a KARMEN ARIZAGA
Etxekoandrea
62 urte



“Gizartearentzat egun garrantzitsua da, egutegian egon beharrezkoa, baina nik neuk ez dut aparteko ezer egiten, egun bat gehiago da nire egunerokoa.”

[BAI ala EZ?]

Datorren denboraldian Real 1. mailan egongo al da?

BAI %14

“Bai, ondiokan badago aukeria eta, matematikoki posible dan neurrian, uste dot ez dala esperantzarik galdu bihar. Ezin dot imajinar Real 2. mailan.”

EZ %86

“Ez. Kontrakoa esatea nahiko nuke, baina aurtengoan ez gara libratuko, 2. mailara goaz zuzenean. Akaso horixe izango da onena, ekipo dezente bat egiten hasteko.”

Datorren asterako... Euskal Herriko zine aretoetan euskararen presentzia oso txikia dela adierazi du Kontseiluak.

Nahiago al zenuke zineman pelikulak euskaraz ikustea?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.

Talasoterapia
Zelai
Z U M A I A

Hilabete honetan
2 pertsonentzako zirkuito
bat zozketatuko dugu
Zumaiako Zelai Talasoterapian.
Zenbat eta erantzun gehiago,
aukera gehiago!

www.talasozeelai.com

JAIOTAKOAK



Miren Serrano Korta
[Urtarrilak 23]
Ibon eta Edume



Oier Arakistain Peñalba
[Otsailak 5]
Unai eta Teresa



Udane Garcia Rolo
[Otsailak 6]
Haritz eta Loli



Eider Plaza Izarralde
[Otsailak 7]
Joaquin eta Alatz



Naroa Urrutia Uria
[Otsailak 9]
Iñaki eta Leire



Eneko Gil Ansola
[Otsailak 10]
Xabier eta Koro



Ixone San Martin Larrañaga
[Otsailak 17]
Manuel eta Eguzkiñe



Ibon Viña Raña
[Otsailak 17]
Jesus eta Ana

Aiora Unceta Latatu
[Otsailak 2]
Gorka eta Arrate

Carlos Jonathan Jimenez Zabala
[Otsailak 12]
Roberto Carlo eta Maria del Carmen

Jonathan Miranda Holmes
[Otsailak 15]
Osny Enrique eta Vicenta Aracely

HILDAKOAK

Victoriana Prieto • [74 urte] • Otsailak 1
Miser cordia Diaz • [95 urte] • Otsailak 1
Luisa Maria Zubiaurre • [81 urte] • Otsailak 2
Juan Jose Fernandez • [86 urte] • Otsailak 8
Jose Urkiri • [80 urte] • Otsailak 18
Justa Villahoz • [75 urte] • Otsailak 25
Moises Agirre • [89 urte] • Otsailak 25
Ramon Untzilla • [42 urte] • Otsailak 27

EZKONTZAK

* Otsailean ez da ezkontzarik izan Elgoibarren

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidali e-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.**

**Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

“Epaile artean” Euskal Herriko Bake Epaileen Elkarteak urteko batzar orokorra egin zuen joan zen domekan, otsailak 25, Mendaron. Bertan, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 30 bake epaile bildu ziren. Bilera honen berri eman digu gaurkoan Juan Mari Uranga Mendaroko bake epaileak, eta bide batez, bere lanbideari buruz hitz egin digu.

JUAN M^a URANGA

MENDAROKO BAKE EPAILEA

«Mendaro herri lasaia da eta ez da mugimendu handirik egoten Bake Epaitegian»



• Zer moduz joan zen urteko batzar orokorra?

Honelako batzar bat antolatzen nuen estreinako aldia izan zen. Ardura handiko kontua izaten da honelakoak antolatzea, izan ere, kide guztiak biltzeko lokal egokia prestatu behar izaten da. Azkenean udalategiko pleno aretoan egin genuen batzarra. Hemendik eskerrak eman nahi dizkiot alkateari eta udal korporazioari, nire izenean eta baita Elkartearen izenean ere, batzar hau antolatzeko eskaini didaten laguntzagatik eta uneoro erakutsi duten prestutasunagatik.

• Zertan datza “Epaile artean” elkarteak?

“Epaile artean” elkarteak duela 16 urte sortu zen. Funtzionatzeko moduak bateratzen saiatzen gara elkartetik, kideen eskaerak betetzen ditugu, ikastaroak eskaintzen dizkiegu talde txikiei eta beharrezkoa den toki guztietan presente egoten ahalegintzen gara. Era berean, Estatuan dauden gure moduko elkarteekin harremanetan egoten gara eta bake epaileen lana ezagutzera ematea da gure zeregine-tako bat. Gure elkarteak oso izen ona dauka hemendik kanpora eta behin baino gehiagotan eskatu izan digute laguntza elkarte berriak sortzeko. Madrilako eta Kanariar Uharteetako Elkarteak adibidez, gure informazio eta funtzionamenduari buruz sortu zen eta horrek aurrera jarraitzeko animoak ematen dizkigu. Espainia mailan Kongresu desberdinetan hartzen dugu parte, iaz Madrilan

izan ginen eta aurten Galiziara joango gara. 2006an sari bat eman ziguten Barzelonan gure lana gorai patuz.

• **Noiz hasi zinen Mendaroko bake epaile lanetan?**

Duela lau urte inguru. Jaurlaritzak antolatutako ikastaro batzuk egin nituen eta ondoren, "Epaile artean" elkartearen sartu nintzen. Guztira 80 bake epaile inguru gaude elkartearen. Zuzendaritzan egon nintzen lehen, eta orain berriro eskatu didate bueltatzeko. Gure lana ia bolondresa dela esan dezakegu. Soldata igoera bat lortu dugu, baina urtean 1.000 euro inguru kobratzen dituz lan hau egiteagatik. Jende nagusi asko dago gure elkartearen, ez da erraza bake epaileak bilatzea. Gure Elkartetik prestatzen ditugu kongresu eta ikastaroak bake epaileak aurkitzeko, baina gehienek denbora gutxi irauten dute lan honetan.

• **Zein da bake epaileen zeregina?**

Egitura judizialeko lehenengo mailan gaude bake epaileak. Ekintza jurisdikzionalak egiteaz gain, askotan gizarte ekintzan ere hartzen dugu parte. Ezin dugu ahaztu justizia azkar eta dohaineakoari buruz ari garela.

«6.000 eurora arteko isunak jarri ditzakegu»

• **Zein zerbitzu eskaintzen ditu Mendaroko Bake Epaitegiak?**

Mendaroko Bake Epaitegiak astean behin irekitzen ditu ateak. Udaletxea daukaten udalerri guztiak derrigorlari daude bake epailea edukitzera. Gero, biztanle kopuruaren arabera, egun gehiagotan ala gutxiagotan eskaintzen dute zerbitzua. Udaletxe batzuk adibidez, beraiek ezartzen dute ezkontza eguna. Gu saiatzen gara jendeak nahi duen eguna errespetatzen. Alor zibila eta penala dira gure kompetentziak. Arlo zibilean, esate baterako, 90 eurotik beherako kostua daukaten gaiak lan-



tzen ditugu; besteak beste, jaiotza edo heriotza erregistroa, ezkontzak... Arlo penalari dagokionean, bestalde, mehatxu, irain, bortxaketa edota bexazio kasuak lantzen ditugu, baina kasu txikiak direnean. Gure lanik garrantzitsuenetakoa lagun arteko adiskidetzak bideratzea da. Herritarrekin daukagun gertutasunagatik Lehen Instan-tziako epaileek baino errazago egin dezakegu lan hau. Beraz, bi herritarren arteko gatazkak epailetara iritsi aurretik kontzen saiatzen gara. Gure erabakietan 6.000 eurora arteko isunak jar ditzakegu.

«Lagun arteko adiskidetzak bideratzea da gure lanik garrantzitsuen»

• **Heriotza erregistroa bake epaileen lana da, baina herrian hildakoak bakarrik erregistratzen al dituzue?**

Orain arte honela izan da, eta oraindik honela izaten jarraitzen du. Hau da, elgoibartar bat donostian hiltzen bada, bertako udaletxean erregistratzen dute. Familiakoak askotan ez dira gogoratzen udaletxera joateaz, ez dira gogoratzen hil dena leku askotan azaltzen dela eta baja eman behar dela... Horregatik hartzen du ardura Bake Epaitegiak. Gure Elkartetik egoera hau aldatu nahian gabilta. Guk nahi duguna da hildako bakoitza bere herriko udaletxean erregistratzea.

• **Zein izan da 4 urte hauetan tokatu zai-zun lanik bitxiena?**

Mendaro herri txikia da, eta egia esanda, ez da mugimendu handiegirik egoten. Hala ere, gero eta gehiago dira udaletxetik ezkontzen direnak. Niretzako lanik bitxiena bi mutilen arteko ezkontza izan da. Mendaroko mutil bat eta brasildar bat ezkondu ziren otsailean. Debabarrena eskualdeko lehene-nego ezkontza homosexuala izan zen, eta bitxia egin zitzaidan. Oso ondo ateratzen dena eta biak oso jatorrak dira.

GAZTIA NAIZ

elkarrizketa...

Amaia Pitharas

“Opera abeslari on bat izatera iristea da nire ametsa”

AMA ELGOIBARTARRA ETA AITA GREKOA IZANIK, AMAIA PITHARAS UNCILLA BRITANIA HANDIAN JAIO ZEN. 14 URTEKO NESKA GAZTE HAU LONDRESEN BIZI DA BERE GURASOekin, ETA AMAREN SENIDEEN BITARTEZ, ELGOIBARREKIN LOTURA ZUZENA DAUKA. TXIKI-TXIKITATIK HASI ZEN MUSIKA IKASTEN, ETA EGUN, LONDRESEKO OPERA NAZIONALEKO PARTAIDEETAKO BAT DA. GABONETAN GURE HERRIRA ETORRI ZEN SENIDEAK BISITAZERA, ETA KONZERTU BAT ESKAINI ZUEN MUSIKA ESKOLAN. GAURKOAN BERAREKIN EGON GARA.

Noiz hasi zinen musika ikasten?

Zazpi urterekin hasi nintzen musika ikasten. Nire irakasle batek esan zion amari ahots polita eta ona neukala; hau da, musikarako dohain bereziak nituela. Kanturako irakasle bat gomendatu ziguten, Jenny Lilleystone. Opera abeslari famatua izan zen emakume hau, eta berak erakutsi dit opera abesteko teknika.

Zein musika mota gustatzen zaizu gehien?

Abesteko denetarik gustatzen zait, baina batez ere, musika klasikoa. Entzuteko, bestalde, rock-a dut gustuko. “Billy Talent eta Cute is what we aim for” izugarri gustatzen zaizkit.

14 urte bakarrik dituzu, baina zure musika curriculum-a zabala da. Zenbat denbora eskaintzen diozu musikari?

Asko. Astero izaten ditut musika klase partikularrak. Kantua, pianoa eta flauta klaseak jasotzen ditut, eta bi astean behin, gitarra elektriko klaseetara joaten naiz. Honetaz aparte, eskolako koroarekin eta orkestrarekin en-

BARREN

tseguak izaten ditut. Astelehenetik zapatura, egunero edukitzen dut musika klaseren bat. Bestalde, Ingalaterrako Koro Nazionalako kide naiz, eta urtean pare bat aldiz elkartzen gara entseguak egiteko. Urte amaieran kontzerturen bat eskaintzen dugu edo CDren bat grabatzen dugu.

Zer da musika zuretzat?

Nire bizitzako alor garrantzitsu bat da. Musika irakurri eta ulertzeko gaitasuna edukitzea ikaragarria da. Abestea izugarri gustatzen zait, baina honetaz gain, flauta, pianoa eta gitarra elektrikoa ere jotzen ditut. Egunen batean opera abeslari on bat izatera iristea da nire ametsa.

“Nire amamaren aurrean abestea oso emozionantea izan zen”

Ingalaterrako Opera Nazionalako partaidea zara. Zure hurrengo helburua?

Opera desberdinetan parte hartu dut Ingalaterrako Opera Nazionalarekin. Besteak beste, 2001ean: “Cunning little Vixen” eta “La Boheme” operak abestu nituen, 2003an “Kovanshchina” eta 2004an “Carmen”. Oraindik gaztea banaiz ere, nire ahotsa 14 urteko neska batena baino helduagoa da. Beraz, hemendik aurrera ezin izango ditut ume paperak egin Orkestran, baina era berean, nagusien paperak egiteko gazteegia naiz. Momentuz, beraz, ikasketekin jarraitzea da nire asmoa.

Musikaz aparte, zer ari zara ikasten?

Ingalaterrako hezkuntza sistema desberdina da. 9. mailan nago, gutxi gorabehera, DBH3. mailari dagokion urtean. Kurso hau guretzat oso garrantzitsua da,

izan ere, datorren urtean GCSE azterketan (selektibitate antzerakoa) egingo ditudan ikasgaiak aukeratu behar ditut, eta egingo dudan karrerarekin zerikusia izan behar dute. Eskola eta musika klaseekin joaten zait denbora gehiena, baina ondo antolatzen naiz. Ama da nire taxista, berak eramaten nau toki guztietara.

Nondik dator kizua musikarako zaleatasuna?

Nire gurasoengandik datorrela uste dut. Aitak gitarra klasikoa jotzen du eta musika izugarri gustatzen zaio. Amak ere oso ondo abesten du, kontra-alto ahotsa dauka, eta bere familian musikak garrantzia handia dauka. Senideok elkartzen garen guztietan abesten bukatzen dugu.

Gabonetan opera kontzertua eskaini zenuen Elgoibarren. Zer moduz atera zen?

Oso ondo atera zen. Silvia Hernandez izan zen pianojolea eta oso ondo jo zituen pieza guztiak. Ez genuen gehiegi entsaiatu, Silviak erraztasun handia erakutsi zuen. Jende gutxi joan zen kontzertura eta harritu egin nintzen, baina oso gustura geratu nintzen emaitzarekin.

Zure senideen aurrean abestea emozionantea izan al zen?

Bai, batez ere, amamaren aurrean abestea. Opera abesten ikusten ninduen lehenengo aldia izan zen berarentzat. Nire ama ere amozionatu egin zen; senideak, ezagun asko...

Askotan etortzen al zarete Elgoibarrera?

Gabonetan urtero joaten gara, eta duela pare bat urte udan ere izan nintzen amama bisitatzen. Asko gustatu zitzaidan, eta beharbada aurtengo udan berriro joando naiz. Lehenengo Torreviejara joango naiz osaba eta amamarekin eta gero Elgoibarko jaietara joatea da nire asmoa. Bidaiatzea izugarri gustatzen zait. 9 urte nituenean Sardinian izan nintzen opera bat abesten eta datorren urtean Txinara joango gara eskolatik. Gauza asko ikasten dira bidaiatzen, oso interesgarria da.



“Opera abesteaz gain, pianoa, flauta eta gitarra elektrikoa jotzen ditut”

Profesionalki musikaz bizitzea posible al da Ingalaterran?

Egia esanda, zaila da hemen musikaz bizitzea, batez ere, musika klasikotik bizitzea. Musika modemoan hobeto ordaintzen dute eta aukera gehiago dago. Hala ere, gustatuko litzaidake musikatik bizitzea eta saiatuko naiz. Nire oinarritzko ikasketak amaitzen ditudanean, “Royal College on Music” ikastetxera joateko asmoa daukat, baina oso zaila da bertan sartzea. Urte bakoitzean ikasle kopuru txikia hartzen dute, munduko ikaslerik onenak bakarrik sartzen dira. Ia suertetik daukaten!

KORRIKA KULTURALA

Korrika 15, martxoaren 25ean igaroko da Elgoibartik



KORRIKA KULTURALA

Martxoak 4

Pizti domatzailea antzerkia
16:30ean Herriko Antzokian

Martxoak 11

Shin Chan helduen inperioan pelikula
16:30ean Herriko Antzokian

Martxoak 16

Mikel Markez eta Pako Aristi
20:00etan Musika Eskolako Auditorioan

Martxoak 22

Txorixak galduta egozenien dokumentala
21:30ean Herriko Antzokian

Martxoak 23

Korrika Txikia
14:45ean King-Kong-etik
Emetik bertso-kabareta
22:15ean Kultur Etxeko sotoan

Martxoak 25

Korrika 15i harrera
14:30ean Sigmako zubian
Cristobal Molon zine emanaldia
16:30ean Herriko Antzokian)

Aurtengoan, martxoaren 25ean, domeka, hartuko dio Elgoibarrek lekuko Korrika 15ari. Eguerdiko 14:30ean iritsiko da euskararen testigua Sigmako zubira. Hala jakinarazi zuten atzo Korrikaren antolatzaileek (AEK eskalgetegia eta Udala), Kultur Etxeko hitzaldi gelan egin zuten aurkezpenean. Urtero legez, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Korrika kulturalaren barruan.

Korrikan parte hartzeko

Herritar guztiak Korrikan parte hartu eta laguntzeko aukera daukate, modu desberdinetan. Besteak beste, "Korrika laguntzaile" euskarria erosiz, ekintzetan edota korrika birtualean parte hartuz www.korrika.org webgunean, diru bilketan lagunduz, edo Euskadiko Kutxan ireki den 3035.0072.02.0720005710 kontu korrontean dirua sartuz. Eta noski, korrika eginez.

Taupadaren antzerki tailerra

Taupada Antzerki taldearen eskutik, antzerki tailerra abian da, eta ekainera arte luzatuko da. Taupadako kide Jose Mari jakinarazi digunez, momentu honetan, 18-25 urte bitarteko 12 gazte inguruk dihardute antzerki taldean eta inprobisazioa, gorpuz espresioa, eta dramatizazioa ari dira lantzen. Hemendik aurrera, monologo eta idatzitako antzerki lanei ekingo diete. Helburua, ikasiz ondo pasatzea da. Saiioak, martxoetik ekainera iraungo du. Izena emateko 943 74 36 55 telefonora deitu.

Pizti domatzailea

Piztia Domatzailea antzerki saioa, ikusgai izango da marxoaren 4an, Herriko Antzokian, 16:30ean. Txalo antzerki taldeak aurkezten digun antzerki emanaldi hau, hiru ipuinen egoitzapenean oinarrituriko saioa dugu. Istorio honetako protagonista, Eider izeneko neska bat da. Ohera joateko orduaren beldur da beti, gaueko iluntasunean eta oheko bakardadean izutu egiten baita.

"Elgoibartarren esanetan" CDaren aurkezpena



Elgoibarko Udalak, 2001. urtean "Elgoibartarren esanetan" egitasmoa abian jarri eta 80 urtetik gorako 21 herritarren testigantzak jaso ondoren, hainbat ekimen burutu dira. Azkenekoa, atzo, Jabi Leon kazetariak Udaletxean aurkeztutako lana dugu; elkarrizketatik ateratako CD bat, 500 mozketan inguru entzuteko aukera ematen duena, guztiak euren transkripzioekin. Horrez gain, herriko irudiak, elkarrizketatuen

datuak eta aipuak biltzen dituen liburua (pdf formatuan) eta ondorioekin osatutako txostena aurkitu daitezke CDan. Eduki guztia euskaraz eta erdaraz azaltzen da eta hainbat atal eta eduki, Jesus Mari Makazaga filologo elgoibartarrak emandako irizpideak jarraituz egokitu dira, beti ere, herriko berbetia jasotzeko. CDaren eduki guztia www.elgoibar.org Elgoibarko Udalen web gunean kontsultatu ahalko da.

LITERATURA

"Iturrino Handia" liburua kaleratu du Hasier Etxeberriak



Hasier Etxeberria idazle eta kazetari elgoibartarrak "Iturrino Handia" liburua aurkeztu zuen joan zen astean, Susa Argitaletxearen eskutik. Nobela honetan, "The great Iturrino" mago ospetsuaren bizipenak jaso ditu Hasier Etxeberriak. Iturrinok bere bizitza kontatzen dio kazetari bati taberna batean daudela, bost egunetan zehar. Kazetariak oso gutxi hitz egiten du nobelan zehar, Iturrino da bere istorioaz berba egiten duen protagonista bakarra. Eta isilik dagoen beste pertsonaia bat tabernako zerbitzaria da. Al-

tzaria dirrudi, baina azkenean irakurlea konturatuko da hori ere ez dela dirudiena. Fikzioaren eta errealtatearen arteko torloju estutu duela azaldu zuen idazleak. Aurkezpen bitxia egin zuen idazleak Donostian, izan ere, kasu honetan ere, errealtatea eta fikzioa uztartu baitzituen. Iturrinorekin batera agertu zen idazlea, baina gizon honek Erreteriko Inaxito Albisuren antz handia zeukan.

Liburua interneten zintzilikatu dute eta nahi duenak, osorik irakurtzeko aukera izango du www.susa-literatura.com webgunean.

"Elgoibarko herria instrumentu taldeen VI. lehiaketa" ospatuko da martxoaren 10ean, Musika Eskolan


Datorren martxoaren 10ean, zapatua, "Elgoibarko herria instrumentu taldeen VI. lehiaketa" izango da, Inazio Bereziartua Musika Eskolako Auditorion.

Aurtengo edizio honetan, guztira 156 ikaslek hartuko dute parte. 22 musika talde, 14 Musika Eskola eta 12 herritako ordezkariek izango ditugu gure artean. Batzuk aipatze aldera, Donostia, Azpeitia, Astigarraga, Hernani, Zizurkil, Irun, Gasteiz eta Gemikako musika eskoletako ikasleak, besteak beste. Musika taldeek joko dituzten piezen egitarua libre izango da eta lehiaketa, hiru mailatan banatuko da: oinarrizko maila I (12 urtetik beherakoentzat, 11:00etan) oina-

rrizko II. mailari, berri, (12-16 urte bitartekoei zuzendurikoa), arratsaldeko 16:00etan ekingo zaio eta azkenik, Maila Ertainak (20 urte artekoiei zuzendurikoa) 17:15tik aurrera izango du jarraipena. Epaimahaia, musika munduan eskarmentu handia duten kideek osatuko dute: Juan Navarro, EOSko klarinete solista eta musika eskolako irakasleak, Mari Jose Cano, Pasaia Musikaleko irakaslea eta Diario Vasco musika kritikaria eta Patricia Goialde, MUSIKENeko irakaslea. Sari banaketa arratsaldeko 19:30ean egingo da. Hiru sari egongo dira maila bakoitzean. Ekitaldi hau, herritar orontzat irekia da.



Maria Ferreiro eta Aitor Asenjo dantzari elgoibartarrek aurreneko postuak eskuratu zituzten Oartzunen



Auresku eta Soinu Zahar Txapelketaren baitan, Maria Ferreirok igandeko txapelketa irabazi zuen Oartzunen. Maila honetan, Itziar Aldalur 3. tokian sailkatu zen eta Ainhoa Agirre, berri, 6.en geratu zen. Aitor Asenjo, berri, larunbatean, 2. postua bereganatu zuen eta Imanol Iturrinok 7.ena. Neskei dagokionez, Nerea Perezek, 30 dantzariaren artean 6. postua erdietsi zuen.

ESPAINIAKO ARKU TIRATZE TXAPELKETA

Iñaki Badiola eta Martin Agirregomezkorta 32 arkulari hoberenen artean sailkatu ziren Salamancan

Elgoibarko Zarta Arku Taldeko, Iñaki Badiola elgoibartarrak eta Martin Agirregomezkorta mutrikuarrak, iragan den ostiraletik igandera bitartean Salamancan jokatu zen, Espainiako Salako Arku Tiratze Txapelketan parte hartu zuten estreinako aldiz. Zarta taldeko bi kideek, 32 arkulari hoberenen artean sailkatzea lortu zuten txapelketa honetara aurkeztu ziren 108 arku jautilarien artean.

Gainera, Martin Agirregomezkortak garaipenerako faboritoetako bat kanporatzea lortu zuen denen ezusterako, mundialetan eta olinpiadetan ibiltzen den goi mailako arkulari bat, hain zuzen ere. Hala ere, pozak ez zuen nahi beste iraun, hurrengo kanporaketan eskas aritu baitzen mutrikuarra. Honela, Iñaki Badiola, Euskadiko Txapeldun ordeak, 19. postua eskuratu zuen, sailkapen orokorrean, eta Martin Agirregomezkorta, 32. lekuan sailkatu zen. Iñaki Badiola, nahi baino lehenago kanporatua izan zen arren, helburuak behintzat beteta itzuli da etxera. Azpimarratzekoa da Zartako bi kideek erakutsi duten maila altua. Izan ere, Espainiako



Txapelketara joandako hiru euskal arkularietatik, bi, Elgoibarko Zarta Taldeko kideak dira.

Espainiako Salako Arku Tiraketaren irabazlea, Juan Jose Alonso asturiarra

izan zen. Emakumezkoei dagokionez, Magali Foulon ibizarrak garaitu zuen txapelketa eta euskaldunen artean, Mayi Sunsundegi aurreneko postuetan sailkatu zen.



Ramon Untzilla Aranberri

2007ko otsailaren 27an hil zen
42 urte zituela

*Dana eman behar jako maite dogun bizitzari;
eta hik eman egin diok,
azkenera arte
bizipozari eutsiz.*

*Hil arte BIZI egin haiz,
eta hori asko dok.*

Kuadrillakoak

MORKAIKO

55 lagun bildu ziren pasa den zapatuan Lapurdira eginiko mendi irteeran



Pasa den zapatuan, otsailaren 24an, Morkaiko Mendizale Elkartek, Lapurdira antolatutako mendi irteeran, 55 lagun bildu ziren.

Goizean zehar euria zela eta, eguraldiak gehiegirik lagundu ez zuen arren, 12

kiometrotako ibilbidea burutu zuten mendizaleek, Biriaturtik abiatu eta Ibardineko gainetik barrena, Oletharaino. Ondoren, bazkaria Astigarragako Astarbe sagardotegian egin zuten. Guztiek ere, oso ondo pasatu zuten.



Unai Arrieta berriz ere jokatzeko hasi da, lesionatuta egon ondoren

Unai Arrieta, Bidasoa eskubaloitako taldeko jokalaria elgoibartarra, lesionaturik egon da, abenduaren 9an, etxean, Estoniako taldearen aurkako partidaren ezker hankan min hartu ondoren. Duela bi aste arte, ez du partidarik jokatzeko izan. Baina, ostera ere, otsailaren 17an, Logroñoren aurkako partidaren beragertu zen. Aurten, Bidasoaren denboraldia, batera ona izaten ari ez den arren, beheko zuloak ateratzeko esperantzarik badela jakinarazi digu; 2-3 punturekin, talde gehiago baitaude. Hala ere, zaila izango da, arerio zuzenen kontra kanpoan dituztelako partida gehienak, eta Artalekun, hots, etxean, soilik 2.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Elgoibar 1 - Zumaiako 4 (Kad.)
 Elgoibar 2 - Touring 2 (1. erreg.)
 Elgoibar 4 - Sporting Herrera 5 (Jub.)
 Elgoibar 5 - Urola 0 (Inf.txiki)
 San Pedro 1 - Haundi 1
 Lagun Onak 2 - Elgoibar 1 (O.Inf.)
 Urki 1 - Elgoibar 7 (Nesk.)
 Elgoibar 4 - Eibar 8 (Alb.)

ARETO FUTBOLA

Kenci 1 - Goierri 4 (Euskal Liga)
 Jostaldi 7 - Kenci 0 (2. mail. gipuzk.)
 Aloña Mendi 4 - Relojes Mondaine 7 (Jub.)
 Zarautz 4 - Elgoibar 3 (Jub.)

ESKU PILOTA

Lagunak 22 - Behar Zana 21 (1.mail. nagus.)
 Bergara 19 - Lagunak 22 (2.mail. nagus.)
 Bergara 19 - Lagunak 22 (2.mail. kad.)

ESKUBALOAIA

TecniFuelle 23 - Romo 20 (Senior mut.)
 Egia 29 - Tecnomeca 31 (Kad. mut.)
 Egia 27 - Pneumax 24 (Jub. mut.)
 Cometel 21 - Jauja 14 (Jub. nesk.)
 IMH 19 - Usurbil 34 (Kad. nesk.)
 Olasa 17 - Aiala A 13 (Inf. nesk.)
 Bergara 13 - Aterpe 12 (Inf. nesk.)
 Hotel Txariduna 12 - Peñafloida Egia 30 (Inf. mut.)
 Lojantzi 25 - Muskiz 19 (Senior nesk.)

[AGENDA]

FUTBOLA Mintxetan

Zapatua, 3
 12:30 Elgoibar - Burumendi (Jub.)
 16:30 Haundi - Amorebieta
Domekia, 4
 12:00 Elgoibar - Aretxabaleta (Inf. txiki)

ESKU PILOTA Ikastolako Frontoian

Barixakua, 2
 21:15 Lagunak - Olalde (2. mail. kad.)
 Lagunak - Antiguako (1. mail. jub.)
 Lagunak - Lazkao (2. mail. nagus.)
Domekia, 4 (Debaroko Txapelketaren hasiera)
 12:00 Lagunak - Bergara (kad.)
 Lagunak - Bergara (nagus.)

ESKUBALOAIA Kiroldegian

Zapatua, 3
 12:30 Cometel - Bera Bera (Jub. nesk.)
 16:00 Tecnomeca - Zarautz (Kad. mut.)
 19:30 Pneumax - Zarautz (Kad. mut.)

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- ▶ Etxea salgai erdialdean. 3 logela, egongela, bainugela eta sukaldelajangela. 120m². Gas naturala, 60m²ko ganbara. ☎ **688650061**
- ▶ Duplex-a salgai Urasandin. 86m² eta 3m²-ko balkoia. 3 logela, sukaldela, egongela, bainua eta komuna. Trasteroa. Kanpoaldera begira, hegoalderantz, eguzkitsua. ☎ **943744403**
- ▶ Etxea salgai erdialdean. 3 logela, sukaldela, egongela, bainugela. 84m². ☎ **646668551**
- ▶ Etxea salgai Plaza Txiki inguruan. 71,5m². Gas naturala, igogailua, hormigoizkoa. Bizitzera sartzeko. www.esnisps.com/web/etxepolita. ☎ **660884060**
- ▶ Etxea salgai San Roke 7an. 85,73m². Bizitzera sartzeko moduan. Ganbara eta garajea. Bi igogailu. ☎ **653713375**

ALOKAIRUA

- ▶ Logela bat edo apartamentua hartuko nuke alokairuan. ☎ **671110796 (19:00-21:00)**
- ▶ Pisua hartuko nuke alokairuan Mendaron. ☎ **636690861**
- ▶ Zarautzen pisua hartuko luke alokairuan familia batek. Handartzatik gertu. Uztaila eta abuztua. ☎ **943530500**
- ▶ Mutil arduratsuak etxea hartuko luke alokairuan Elgoibar edo inguan. ☎ **620049420**

[AUTOAK]

- ▶ Fiat Ducato autokarabana salgai. 1994. urtekoa. 117.000Km. 4 plaza. ☎ **619853564**
- ▶ Mercedes Vito furgoneta salgai. ☎ **620263197**

[BESTELAKOAK]

- ▶ Apal metalikoak eta lau ume-maniki salgai negoziara ixten delako. ☎ **600230468**
- ▶ Play Station 2rako jokoak salgai. Egoera onean. 10 euro. ☎ **627889259**
- ▶ Lasterketako bizikleta salgai. Laiz markakoa. Ekipo guztia, egoera onean. 230 euro. ☎ **627889259**
- ▶ Bigarren eskuko josteko makina bat erosiko nuke. ☎ **686521598**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

- Gizona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **638494501**
- Neska gaztea arratsaldez ume txikiak zaintzeko prest. ☎ **600336245**
- Gizona obretan, igeltsero, edo beste edozein lan egiteko prest. ☎ **616512795**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **639020180**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **943741685**
- Magisteritzako ikaslea (Lehen Hezkuntza) klase partikularrak emateko prest. ☎ **679237611 (Maria)**
- Magisteritzako ikaslea umeak zaintzeko prest, lanegun eta asteburuetan. ☎ **679237611 (Maria)**
- Neska lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaindu, garbiketak egin... Gida baimenarekin. ☎ **628613143**
- Gizona eraikuntza lanetarako prest. ☎ **663724622**

- Bi emakume lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaindu, garbiketak egin... ☎ **636120425**
- Gizona eraikuntza lanetarako prest. Gida baimenarekin. ☎ **679759371**
- Gizona edozein lanetarako prest. ☎ **691911080**
- Emakumea garbiketak egin edo nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **638515953**
- Emakumea garbiketak egin, nagusiak zaindu, jostun lanak egin... ☎ **686 521598**
- Neska lanerako prest. ☎ **626767586**
- Neska lanerako prest. ☎ **638520765**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest, interna moduan edo orduka. ☎ **699813826**
- Emakumea garbiketak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **639882004**
- Neska garbiketak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **943530132**
- Emakumea garbiketak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **616465940/943254087**
- Emakumea garbiketak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **610632782**

- Neska garbiketak egiteko prest. ☎ **667709431**
- Emakumea garbiketak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **943531270**
- Mutila igeltsero, soldatzaile edo segurtasun goardia lanetarako prest. ☎ **610916699**
- Emakumea gaixoak zaintzeko prest, egunez edo gauzez. ☎ **943172896 (Mertxe)**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **648865737**

ESKAINNTZA

- Uztaileko ingeleseko udalekue-tarako begiraleak behar dira. ☎ **943712055 (Silvia)**
- Emakumea behar da ume bat zaintzeko. Goizez, orduka lan egiteko. Ahal bada euskalduna. ☎ **669339529**
- "Arrikuen prebentziorako teknika" klaseak emateko pertsona behar da. ☎ **943820603**
- Bitxiak, barruko erropak eta edergintzako produktuak saltzeko pertsonak behar dira. Ez da esperientziarik behar. Irabazi onak. ☎ **607824892**
- Asteburuetarako kamareroa behar da. ☎ **670250429**

- Harategian lan egiteko mutil gazte euskalduna behar da. ☎ **943742048**

- Tabernarako kamareroa behar da. ☎ **943254366**
- Igeltseritzako 1. edo 2. mailako ofiziala behar da. ☎ **605705204**
- Gabi jatetxerako kamareroa behar da, barrarako eta jangelarako. ☎ **943741230**
- Asteburu eta jai egunetan gasolindegian lan egiteko pertsona bat behar da. ☎ **943740241**

ABISUAK

- Mutil bat zaintzeko gizonetzkoa behar da. Gizon aktiboa. Bolondresa. ☎ **943 74 07 01**
- Mugerza Kros egunearan pultsera bat aurkitu nuen Mintxetan. ☎ **943 74 42 06**
- San Roken, kiroldegi aurrean, gizonetzko txamarra berde bat eraman zidan haizeak. Mendikoa, forro beltza, taila handia. ☎ **943 74 29 30**
- Urre zuriko eskumuturrekoa galdu nuen Mintxetan. ☎ **618480560**
- 4 urteko setter arrazako txakur emea oparitzen dut. ☎ **607311890**

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Ainhoa** otsailaren 26an 9 urte egin zenituelako. Etxekoen eta bereziki, Nagoreren partez.



▶ Zorionak **Natalia** martxoaren 6an 15 urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



▶ Zorionak **Iker!** Ondo-ondo pasa Mintxetan larunbatean. Muxu handi bat familiakoen partez.



▶ Zorionak **Julen** otsailaren 28an 3 urte egin zenituelako. Etxekoen eta bereziki, Andoniren partez. Muxu handi bat, Sagu!




▶ Zorionak **Jone** gaur 2 urte egin dituzulako. Muxu handi bat gurasoen eta ahizparen partez.



▶ Zorionak **Izar** ama, aita eta familiakoen partez.



▶ Zorionak **Andoni** martxoaren 6an 11 urte egingo dituzulako. Etxeko guztien partez.



▶ Zorionak **Iker** hilaren 5ean 9 urte egingo dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Andoniren partez.




▶ Zorionak **Paquil** Beti dator buelta! Ondo pasa zure egunean. Familiakoen partez.



▶ Zorionak **Aitor** zure 9. urtebetetzean. Egun ona pasa! Etxeko guztien partez.



▶ Zorionak **Andrea** martxoaren 5ean 9 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat gurasoen partez.



▶ Zorionak **Ander** martxoaren 5ean urte bat egingo duzulako. Familiakoen partez.



▶ 1957ko martxoaren 1ean Bergaran ezkon berri, 2007an elgoibarren bizi. Zorionak bikote! O Mari Joxu Xan Pexel taldearen partez.



▶ Zorionak **June eta Nora** 3 eta 7 urte betetzen dituzuelako. Familiako guztien partez.



▶ Zorionak **bikote!** Gaur urrezko ezteiak egin dituzulako. Familiakoen partez.



▶ Zorionak **Nora** familiako guztien partez, 5 urte bete dituzulako.



▶ Zorionak **Alba** guraso eta ahizpa Rocio eta Auraren partez.



▶ Zorionak **Nerea** gaur 9 urte egin dituzulako. Familiakoen partez.

▶ Zorionak **Antxon De La Ardari** bere 9. urtebetetzean. Familiakoen partez.

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



[OKINDEGIA]



4 igandea IBARRENA



[FARMAZIAK]

- GUARDIA** 24 ORDUZ
- 2 Etxeberria (Errosario)
 - 3 Ibañez
(* Goizez Etxeberria-Santa Ana)
 - 4 Ibañez
 - 5 Bidasolo
 - 6 Etxeberria (Santa Ana)
 - 7 Fernandez
 - 8 Yudego
 - 9 Zabaleta

KANPOKO FARMAZIAK
IBÁÑEZ
 Rekalde, 1 Soraluze.
 Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
 Herriko enparantza 4, Garagarza.
 Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
 Kalebarren, 9 Soraluze.
 Tel: 943 75 13 84

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.



[TELEFONOAK]

OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Larrialdiak	943 46 11 11
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emaileak	943 74 39 36

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Hirigintza	943 74 43 84
Epaitegia	943 74 16 30
Haziena	943 74 44 14
Mendaroko Udala	943 03 32 82
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udalzaingoa	943 74 13 94
Debemen	943 74 40 67

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98
Bizkaibus	902 222 265

BESTELAKOAK

BARREN astekaria	943 74 41 12
Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gazte Informazioa	943 74 14 61
KZ gunea	943 74 88 28

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEAK

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
LM.H.	943 74 41 32
Institutua • Arreiture	943 74 80 19
•Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA

Astegunak:
 7:10, 8:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00,
 15:10, 15:40, 16:00, 18:45, 20:00,
 20:45

Larunbatak:
 7:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10,
 18:45, 20:00

Igandeak eta jaiegunak:
 9:45, 10:30, 13:45, 18:45, 20:00,
 20:45

Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR

Astegunak:
 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30,
 15:00, 17:30, 19:30, 20:45.

Larunbatak:
 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30,
 19:30, 20:45

Igandeak eta jaiegunak:
 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.

PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak:
 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45..
 ordu erdika. Azkena; 20:45.

Asteburuk eta jaiegunak:
 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.

EUSKOTREN: 902 543 210

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak:
 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena
 21:55.

Asteburua eta jaiegunak:
 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.

EUSKOTREN: 902 543 210

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK

EUSKOTREN: 902 543 210

ELGOIBAR-DEBA

1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR

12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR

12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR

1:00, 2:30, 4:30, 6:00

[2 BARIXAKUA]

19:30 ORAIN EZKER ABERTZALEA ELGOIBARREN

Aurkezpen ekitaldia
 Kultur Etxean

22:15 OTRAS MUJERES ANTZEZLANA

Antonia San Juanen konpainia
 Herriko Antzokian
 Antolatzaileak: Haizea eta Kultura Saila

22:30 STOCKHOLM S TALDEAREN KONTZERTUA

Kultur Etxeko Sotoan
 Antolatzailea: Madalako Jai Batzordea

[3 ZAPATUA]


11:30 ATE IREKIEN EGUNA HERRI ESKOLAN

Herri Eskolako eraikin nagusian
 (11:30etik 18:30era)
 Goizean tailerrak eta jolasak

16:30 KIKI ETA KOKO PAILAZOAK Herri Eskolan

SINOPSISIAK

«Truco final»



[4 DOMEKIA]

16:30 PIZTI DOMATZAILEA

Taldea: Txalo Antzerki taldea
Herriko Antzokian
Dohainik
Antolatzailea: Kutxaren Gizarte Ekintza

[7 EGUAZTENA]

20:00 HITZALDIA

Gaia: elikadura eta osasuna;
medikuntza ekologikoa
Hizlaria: Pascal Trotta doktorea

[8 EGUENA]

20:00 KONTZENTRAZIOA

Emakumearen Nazioarteko eguna
dela-eta
Plaza Handian
Biluzik, Gazte Asanbladak eta
Haizea E.T.ak deituta

[9 BARIXAKUA]

22:00 BIDEO FORUM-A

Filmea: "En tierra de hombres"
Kultur Etxeko Hitzaldi gelan
Hizlaria: Eskame Larrinaga
Antolatzailea: haizea Emakume Taldea
Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN



«Truco final»

3, zapatua: 19:30-22:15

4, domekia: 19:30-22:15

astelehena: 21:30

«Agua con sal» (Z.K.)

8, eguena: 21:30

EIBAR, UNZAGA

«Babel»

2, barixakua: 19:30-22:15

3, zapatua: 17:00-19:45-22:30

4, domekia: 17:00-19:45-22:30

5, astelehena: 19:30-22:15

6, martitzena: 19:30-22:15

7, eguaztrena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

«Agua con sal» (Z.K.)

Zuzendaria: Christopher Nolan.

Antzezleak: Hugh Jackman, Christian Bale.

XIX. mendeko London garabeheratsuan hasiko da dena, aztiak idolo estatua eta mirespen iturri ziren garaietan. Hauxe da bi ilusiogile gaztek aukeratu duten bidea eta ez dute atsedenik hartuko harik eta azti ospetsu izatera iritsi arte. Robert eta Alfred azti izateko ilusioak batzen ditu, baina bata bestearengandik oso bestelakoak dira. Hasieran mirespena erakutsiko diote elkari. Berehala sortuko dira, baina, bien arteko ezin ikusi eta ezkutuko grinak. Truko harrigarrienak asmatuz bata bestea gainditzen saiatuko dira.



Zuzendaria: Pedro Pérez-Rosado

Antzezleak: Yoima Valdés, Leyre Berrocal, Juan Carlos Morales.

Olga beka bati esker Espainiara iritsi zen gazte kubatarra da. Bizimodu hobea baten hasiera izango zelakoa ailegatu zen arren, paperik gabeko imigrante bat gehiago izaten amaitu du denborarekin. Marjinalitatean bizi da, ezin da sorterrira itzuli eta nola edo hala biziraun behar du. Mari Jo, berriz, arazoz beteriko familia batean hasitako neska valentziarra da. Altzari fabrika batean lan egiten dute biek, orduko bi euro kobratuz, eta bizitzak kendu diena berreskuratzeko itzaropena galdu gabe.

Atzera hegira



1965. urteko erretratu zahar hau **Petra Carrascok** laga digu. 1965. urtean ateratako erretratu da. Argazkian ageri diren mutilak San Luis Gonzaga kongregazioko ki-deak ziren garai hartan. Urte honetan, Altzolan egin zen kongregazio honen bilkura eta mezaren ostean atera zuten argazkia. Garai hartan oso ohikoa zen kongregazio erlijiosoetako ki-de izatea eta talde handiak elkartzen ziren honelako ekitaldietan. Ospakizun hauen ondoren, txikiteoa egiten zuten gazteek. Gogora ditzagun nortzuk diren erretratuan ageri zaizkigun mutil gazte hauek. Goian, ezkerretik eskumara: **Jose Mari Larrañaga (†)**, **Esteban Bernedo**, **Braulio Fernandez**, **Jose Mari Indeiza (†)**, **Jose Chamorro**. Beheko ilaran: **Juan Ignacio Santaren** eta **Ricardo Moreno**.



ESKERTZA

2007ko otsailaren 27an, 42 urte zituela hil zen **Ramon Untzilla Aranberri**ren sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2007ko otsailaren 25ean hil zen **Moisés Aguirre Larrañaga**ren sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behea

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

GUK

ikastola

elgoibar@ikastola.net
http://www.elgoibarikastola.net

943 744441

Aurre-matrikulazioa:
Otsailaren 26tik martxoaren 9ra

Haur hezkuntza



Lehen hezkuntza



Bigarren hezkuntza



Elgoibarko Herri Eskolako Ate Ireki eguna: Martxoak 3

MATRIKULAZIOA

2007 - 2008

Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
OTSAILAREN 26tik MARTXOAREN 9ra



Elgoibarko Herri Eskola

Kalamua, 8

Tel.: 943 74 08 79

E-posta: 012777aa@hezkuntza.net



baikara

Elgoibarko Herri
Eskolaren Hezkuntza



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA
UNIBERTSITATE eta
IKERKETA SAILA



Euskadi
2 0 0 4

Elgoibarko Institutua

San Roke, 11

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: bulegoa@elgoibarko.net